



Comunidades Cristianas Fe y Justicia
Fede eta Justizia Kristau Komunitateen Elkarte

BEHARTSUEN ALDEKO AUKERA

Bilbao, 1999ko apirilaren 20a.



1. BEHARTSUEN ALDEKO AUKERA

Behartsuen aldeko aukera (era batera edo bestera ulertua) kristau fedearen muinari dagokio. Ebanjelioaren irakurketak eta Jesusen begiespenak ez dute zalantzarako tokirik uzten. Gure elizako historian behartsuen aldeko aukera etengabe azaltzen da. Aukera honen gaur egungo ulertzeko era eta gauzapena Kontzilio Vatikanoko II.aren ildotik bereziki ulertzen da eta praktika arloan, espiritueltasuna eta, batez ere, hirugarren mundua deituriko herrialdeen egindako askapen teologia.

Behartsuen aldeko aukera arrazionala da baina gaur eguneko eliza eta gizarteko hainbat sektoreen logika garailearengandik oso urrun dago.

Baztertuen alde jartzea dakar, baliorik gabekoak, ahulak, zapalduak. Behartsuen aldeko aukera (instituzio nahiz pertsona mailan) errukitik eta gure munduan argia den senidearen hondamenak sortzen digun minatik sortzen da. Gizakien senidearen hausturak bizitzak goizegi hondatzen ditu mina handiz sortuz. Hondamen honen arduradun eta lekuko bihurtzen gaitu.

Behartsuen aldeko aukera egiten bada eta berritu, praktikatu, otoitz egin eta banatzen bada, gure lehentasun, aukera eta bizitzan aldaketak sortzen dira. Gure bizitza proiektua erabat eraldatzen du eta bere ezaugarri guztiak: otoitza, militantzia, etab. Gure talde-egitasmo eta bere instituzio bitartekariak. Anaitasunezkoa den gizatasun berriaren bultzapena eta praktikak sartzera garamatza.

Kristaudentzat behartsuen aldeko aukera ez da sortzen arrazoi etiko, ideologiko edo politikoetatik, baizik eta, Jesusen espiritua banatzeko esperientziatik.

2. BEHARTSUAK

“Behartsuak” nortzuk diren argitzeko unean, irizpide ekonomikoa soilik kontuan hartzen duen ikuspuntu murriztaile ekonomizista ezin dugu onartu. Ezta jarrera idealista edo individualista ere, aukera honek behartasunaren muinean behartasun ekonomiko eta soziala daudela ezagutzen ez duelako. Honek ez du esan nahi, kontuan hartu beharreko beste zapalketa edo bazterketa egoera batzuk ez daudenik: osasun, genero, politikan parte hartzea, adina, kultura, etab. Behartsuen aldeko aukera zer den ulertzeko.



Ari garen behartasuna, ez da gertakari naturala historikoa baino. Ez da zerbait desiragarria, gorrotagarria baizik. Gure jainko ama aitak bere seme alaben bizitza oparo, maitasuneko eta emankorra baino ez du nahi eta txirotasuna honen zuzenketa txikia baino ez da. Behartasuna eta bazterketa bekatuan oinarritutako egitura historikoaren ondorioak dira. Egitura hauek, sinisten dugun ebanjelioak eta giza eskubideek baieztatzen duen herritartasun unibertala ukatzen dute.

Bestalde, hautaketa honek aukeratzen dituen behartsuak mugatzen dituen muga zehatzik ez dago. Hauek ez dute talde homogeneousorik osatzen. Behartasuna eta bazterketa erlatiboak eta forma anitzekoak dira. Gertakari honen muga zehatzez baino, gertakari arduratu nahi dugu eta bertara hurbilduz eraldatzen lagundu era askotan eta bide desberdinen bitartez.

3. BEHARTASUNA ETA BAZTERKETAREKIKO HURBILKETA ETA HARREMANA

Behartsuen aldeko aukera ezin daiteke hautaketa intelektual hutsera murriztu inolaz ere. Hurbilketa eta harremana ezinbestekoak dira.

Behartsu eta baztertuekiko hurbilketa eta harremanak aldaketak egitera garamatza: beharren ulerpena, harreman sarea, lan aukerak, erreferentzia talde eta instituzioa, bizilekua, gastu jarraibideak, kontsumo era eta baliabide trukaketa, etab. Behartasunaren kulturekiko kontaktuan, aldaketa eta bizitza berregituratzeak egitean datza.

Kontua ez da "oparotasunaren kultura"-n bizitzea baina beste batzuk baino oparotasun txikiagorekin sufritzea. Baizik eta egunero eraldaketarako arriskua hartzea. Eraldaketa beste logika eta arrazionaltasunerantz. Arrazionaltasun nagusi eta bere botere, merkatu eta alienazio lengoaiarekiko alternatiba. Askok ergelkeria edo eskandalutzat hartuko duten logika. Hitz gakoa banatzea da.

Behartasuna ez da desiragarria eta gorrotagarria da, beraz, ez dugu inorentzat ezta guretzat ere. Halere, bakoitzeko ehun ematearen agintza, eta sinestun nahiz ez sinestun askoren testigantzak lagun gaitzake zoriontsuago bizitzen bizimodu eta elkarbanatze era berriaren esperientziaren bitartez.



Hau dena lortzeko bitartekoez aritzean, ezinbestekoa ikusezina dela gogoratu behar da. Ikasteko prozesu honetan norberak urrats desberdinak eman behar dituela ados gaude, norberaren abiapuntua, prozesua eta aurretik ikasitakoa kontuan harturik. Honek denak, heldutasuna, oreka pertsonala, senide eta lagunekiko harremanak, heziketa, egituren aldaketaren aldeko lana, etab helburutzat edukiko ditu. Pertsonen arteko bizi-baldintzak ezin daitezke alderatu behartsuen aldeko hautaketaren koherentzia aintzat hartzeko unean.

Ez dago guztiontzako eredu edo bide bakarrik. Are gehiago, munduan dagoen garapen ereduak gutako askoren eskubideak urratzen ditu eta gizakien geroaldia kolokan jartzen du. Beraz, bizitza eta justiziaren aldeko konpromiso era anitzak bilatzea bultzatu nahi dugu.

Halere, lehenago esan bezala, kristautasuna eta Fede eta Justizia elkarte, hain zuzen, ez dira heroientzat. Garen modukoak maitatuak gara. Jainkoak horrelaxe maite ditu bere seme-alabak. Hau dela eta, bortxatutako eta tentsioko ekintza eta aukera moralistez ez gara fidatzen, teoria marko batzuekin bat datozen arren.

Fede eta Justizian aurkakoak lotzeaz aritzen garenean, aurkako hauek (oreka eta aldaketa, zoriontasuna eta eskaera, harmonia eta gatazka, txirotasuna eta politika, otoitza eta konpromisoa, komunitatea eta askatasuna, heziketa eta ekintza, etab) elkarri lagundu ahal diotela.

4. KONPROMISO SOLIDARIOA ETA JUSTIZIAREN ALDEKO LANA

Haragitze, txertatze, aldaketa pertsonala eta banatzearen bizipenaren unea bezain garrantzitsuak dira: konpromiso, baliabideen erabilera eta gizakien artikulazioa, antolamendua, justiziaren aldeko lan eraginkorra. Baztertuta eta txiroak direnekin batera eta haien alde egiten den lana, ezinbestekoa da, era anitzetan gauzatu ahal den arren.

Norberaren aldaketa eta lan eraginkorraren arteko tentsioa dago. Batzuek aldaketa pertsonala landu badute ere, ez dute lan eraginkorrik egin. Beste batzuek, ordea, sentimenduak, erreferentziak eta behartsuenganako harremanak galdu dituzte.

Behartasuna eta bazterketaren egiturazko arrazoiak argitara ekartzen dituen ekintza, hausnarketa, eta heziketaren alde egiten dugu. Politikaren eraginkortasuna eskatzen dugu. Behartsu eta baztertutako pertsonen bizitzan dituen ondorioak nahita eskuztatzen da eta.



Behartsuen aldeko aukerak gure bizitza zeharkatzen badu, behartsuenganako konpromisoak ere bai. Hau guzti hau, gure senide, komunitate eta hiritar bizitzan islatu behar da, baita gizarte, sindikatu eta politika arloetan, lanean zein otoitzean.

5. KOMUNITATE AUKERA

Behartsuen aldeko aukera bai pertsonalki baita komunitate mailan ere egiten dugu. Komunitatea ere deitua da baliabideen erabilpen berria egiteko, behartsu eta baztertuen integrazioa lortzeko eta justizia bultzatzeko.

Bestaldetik, komunitatea oso bitarteko boteretsua izan daiteke gehiengoaren pilaketarekin apurtzeko eta banatzeko eredu berria ikasteko. Behartsuenganako aukerak logika alternatibo eta berri batera bagaramatza, ez da ahantzi behar alternatiboa den oro natural eta normaltzat dugun logikak kritikatu dela. Komunitate kristaua alternatiba honetarako lagungarria izan daiteke eta izan behar da.

Bestalde, behartsuen aukera bizitzeko era anitzak kontuan harturik, komunitatea sentsibilitate (muina eta periferia, laguntza eta egiturazko aldaketa, haragitze eta ekintza, etab) eta bide desberdinak elkarri elikatzen dioten gunea izan daiteke.

6. BEHARTSUEN AUKERA MUNDUAN

Behartsuen aldeko aukerak dimentsio geopolitikoa ere badauka. Hau da, ez da ahaztu behar txirotasuna hurbil dagoen arren, munduko zonalde zehatz batzuetan pilatzen dela. Norbera, komunitate eta eliz mailan txirotasunaren dimentsio geopolitikoa gogoratu beharrean gaude.

Halere, misioak edo garapenerako laguntza garapenerako lankidetzaz arazo honi irtenbidea emateko dugun bitarteko nagusia dela pentsatzea okerra da. Bitarteko hauek erabilgarriak dira baina mugatuak ere bai. Hau honela izanda ere, gure elkartean hirugarren munduan deitutako herrietan egitasmo pertsonalak eta komunitatearenak agertzea keinu ona izango litzateke.

Komunitate bezala, lankidetzaz modu desberdinak berrikusi nahi ditugu eliza eta hirugarren munduko herrialdeekin batera justizia, elkarrekikotasun eta anaitasunezko eta anitza den gizatasuna elkarrekin eraikitzeko.



7. AURRERA EGINEZ

Txiro jaio eta bizi ez garenontzat txirotasunaren munduarekin harremanak izatea (boluntario lana, auzolandegiak, bidaiak, etab) interesgarria izan daiteke. Tamalez, badakigu honelako esperientziak ondo antolatuta ez badaude, gure bizitza eraldatzen duen erabakirik ez dela sortzen eta eraginak ez duela luzaroan irauten.

Ebanjelioarekin egiten den otoitza, eta zehazki, Jesusen begiespena txiroen aukera gudan berrindartzeko bide onak dira. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharrean gaude, gizarteak zein elizak Jesusen jarraipenak gure bizitzan eduki lezakeen zentzu iraultzailea txikitzen dutela.

Elkarri lagundu nahi diogu behartsuen aukerari buruz komunitateak egin dituen hausnarketa hauek kontuan hartzeko. Hauen helburua, bizitza bihozberagoa eta kristauagoa lortzen laguntzea baino ez da.

Bilbao, 1999ko apirilaren 20a.